

Joxerra Aizpurua

INDUSTRIA INGENIARIA

Argiarena ez dago argi

Iazko udazkenean CERNen izandako saiakera baten berri izan genuen mundu osoko hedabideetan; neutrinoak argia baino azkarrago higitzen direla ondorioztatu zen. Horren zantzuak aurkitu zituztela. Notizia baieztatuz gero, Einsteinen teoria kilikolo geratzeko arriskua zegoen, baita fisika modernoaren oinarriak ere. Martxoan, aldiz, gauzak bere onera etorri direla zabaldu da, frogatuta geratu baita udazkeneko saiakera hartan erabilitako tresnak behar bezala doitu gabe zeudela.

Gertatutakoaren oinarrian neurketa-akatsa izan dela ziurtatu zaigu, hedabideen bidez. Aldiz, inor gutxik esan digu laster beste saiakera bat egingo dutela CERNen. “Akatsen” hipotesia benetan hala ote den frogatu behar baita.

Bistan denez, korapilatu da gaia, baita galdera ugari plazaratu ere beronen inguruan. Hona batzuk: nolatan jo zuten behin betikotzat lehen saiakeran neurtutakoa? Noiztik dute ikerlariak horrenbesteko presa? Zenbait ikerlari automatikoki jarri zuten aurka, zer dela eta? Zergatik onartzen dute orain hedabide guztiak akatsen hipotesia?

Gaiarekiko distantzia hartuta, oso agerian geratu da hainbat gauza. Batetik, ekonomia interesak izugarriak direla, eta CERNeko ikerlariak derrigortuta zeudela garrantzizko zerbaite iragartzera, bereziki hainbeste diru inbertitu ondoren. Bestetik, ezer argia baino azkarrago



DANI BLANCO

higitzea posible izango balitz ere, fisikari askok ez luketela hain erraz onartuko, zientzian ezarritako ordena aldatzeko prest ez daudelako. Azkenik, munduko hedabideak nahi bezala manipulatzeko dituztela.

Boterearen/diruaren/ohituraren elkarketa berriro agerian dago. Galileoren garaian, Lurra borobila zela esan zenean, baieztapen horren aldeko asko erre egin zuten. Egun ez dute inor hilko, baina, agian, zenbait aditu ikerketaren eremutik baztertuko dituzte.

Ez dakit CERNek egindako ikerketan akatsak izan ote diren. Ez dakit CERNeko ikerlariak ospea azkarregi behar ote zuten, baina badakit munduan, orain eta lehen, gurpil ekonomiko-kulturalari ez zaiola interesatzen argia baino azkarragoa den zerbaite existitzea; fisikaren oinarriak goitik behera aldatuko lirakeelako, urrutiko izarren distantziak birkalkulatu beharko lirakeelako, argiaren teknologia menperatzeak ez lukeelako abiadura-mugak menperatzea ekarriko.

Eta hala eta guztiz ere, Erlatibitatearen Teorian adierazitako muga gaindituko izana egia balitz, ez nuke esango Einsteinek kale egin zuenik (zenbait artikulutan, ikusgarritasunaren bila-edo, adierazi den bezala).

Gizakiak urrutiago heltzeko grina irudikatuko lukeen adibiderik ederrerenetakoa dela esango nuke. Ametsei eusteko bidea dela. ■



Galileoren garaian,

Lurra borobila zela

esan zuten asko

erre zuten. Egun

ez dute inor hilko,

baina, agian,

zenbait aditu

ikerketaren

eremutik

baztertuko

dituzte

TXANDAN

Joxerra Garzia



Zuk-eman-ta-nik-hartu sisteman heziak (eta hesiak) garrigu, joan den mendeko kume izatera kondenatuak betiko.

Oraingo sisteman, denek hartu ez ezik denek ematea omen da kontua. Akabo eman gabe hartu behar tristea: hartu orduko emateko eskubidea du mundu guztiak.

Hamaika aldiz gustura kantatuagatik, bagenekien gezurra zela, aitona-amonak eta neska-mutilak ez zirela aritzen txikili-txakala egiten, ez Azkoitiko Azkaraten ez parajeotan beste inon ere.

Sistema zaharraren mendeko izaki, gauza bera

Seta eta tema

gertatzen zait 2.0 esaten dioten komunikazio sistemarekin. Giza-komunikazioa errotoik eta behin-betiko aldatu(ko) duela? Baliteke, baina sistema berriak ere ez ditubada, *bentaja guztiak*.

Hedabideetako kirol emankizunetan ohikoa dena (narrazioan entzuleen iritziak tartekatzea), filmetan ere egitearen aldeko hotsak entzun ditut, eta antzerkiaren txanda izan liteke hurrena...

Seta eta tema omen zaharraren sisteman. Ni hasita nago berriz “ez dira pasatuko” marmar zaharrean. Fortuna hobea beharko dugu oraingoan. ■

